

2021 Aurrekontua

Txostenak

Txosten orokorra
2021 ekitaldiko aurrekontua

Toki entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, udala honetako kontu-hartzaileak ondorengo txostena egin du;

TXOSTENA

Alkate-lehendakariak 2021eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden aurrekontuak aurkeztu ditu:

- Udalaren Aurrekontua 36.202.261,00€-koa dena.
- Zarautz-Lur SA udal sozietate publikoaren Aurrekontua 299.600,00€-koa dena.
- Aurrekontu bateratua 36.291.861,00€-koa dena.

Aurrekontu Orokorraren azterketak hau azaltzen digu:

- Aipatutako aurrekontuetako bakoitzean hauek sartu dira: ekitaldian likidatu beharreko eskubideengatik aurreikusitako sarreraren egoera, ordainketazko nahiz konpromisozko beharrei aurre egiteko kredituen gastuen egoera, azalpen memoria eta aipatutako arauaren 6. artikuluan adierazitako eranskinak.
- Aurrekontuetan jasotako diru-sarrerak nahikoak dira bertan aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Era horretan, Aurrekontu Orokorrak 9/2020 Foru Dekretu-Arauak defizitari buruzko xedapena betetzen du.
- Aurrekontu Orokorra nahiz bera osatzen duten aurrekontuak egiterakoan aurrekontu gaietan indarrean dauden xedapenak izan dira kontuan.
- Aurrekontu Orokorra onartzen duen behin-behineko erabakia hartu ondoren (aktan aurrekontu bakoitzaren kapitulukako laburpena azaldu beharko da), GAOn argitaratuko da eta udaletxeko webgunean eta iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost laneguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.
- Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, udalbatzarrak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betiko onartu.

Orain arteko guzti hori da azaldu nahi genuena.

Zarautz, 2021eko urtarrilaren 7a.

Kontu-hartzailea

KARMELE
LIZASO
UBERA -
15994294W

Digitalki sinatuta
norengandik:
KARMELE LIZASO
UBERA -
15994294W
Data: 2021.01.11
10:23:51 +01'00'

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2021. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu-Araua, toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATEA:

1. ZARAUZKO UDALA

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2021. urtean:

Superabita:	8.377,08
DGarekin finantzatutako defizita:	0,00

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	34.864.414,00
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	34.856.036,92
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	8.377,08
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	0,00
DGak finantzatutako defizita:	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia, erreferentziako defizitarekin alderatzeko	8.377,08

2021. urterako ez da egonkortasun helbururik ezarri, baina bai, ordea, erreferentziako defizit bat, eta gomendagarria da udalak hura ez gaintitzea. ZARAUZKO UDALAREN kasuan, erreferentziako defizit hori -2465269 euroakoa da.

Bi zenbateko horiek alderatuz, ikus daiteke udalaren finantzaketa ahalmenak erreferentziako defizita ez duela gaintitzen.

Finantzen iraunkortasuna

2021-12-31n, entitatearen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2020. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %20,61

Kalkulua egiteko, 2020-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2021. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2021. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2021. urterako zor biziaren helburua etenda dago.

Gastuaren araua

2021. urtean gastu konputagarriaren bilakaera honakoa izan da:

	2021	2020
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	34.856.036,92	30.900.599,66
Zorraren interesak:	57.110,00	23.688,80
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	1.706.118,00	2.153.116,34
Gastu konputagarria:	33.092.808,92	28.723.794,52
Gastu konputagarriaren hazkundera:	0,15	

2021. urterako gastu arauaren helburua etenda dago.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez du gainditu 2021 ekitaldirako ezarritako erreferentziako defizita. Beraz, ez du 9/2020 FDaren 1.4 artikulua aurreikusitako plan ekonomiko finantzariorik egin behar.

Zarautzen, 2021eko urtarrilaren 7an. Kontu-hartzailea

KARMELE
LIZASO UBERA
- 15994294W

Digitalki sinatuta
norengandik: KARMELE
LIZASO UBERA - 15994294W
Data: 2021.01.11 10:22:36
+01'00'

Sin.: Karmele Lizaso Ubera

Ekonomi eta Finantza Txostena

2021 ekitaldiko aurrekontua

Udal honetako kontu-hartzaileak txosten hau egin du ondorengo xedapenak betez: 39/1988 Legea, abenduaren 28koa, Toki Ogasunak arautzen dituen (149.1 e) artikulua); 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa (6.3 e) artikulua); eta 128/2018 Errege Dekretua (4.1. artikulua).

TXOSTENA

- 1.- Hemen aztertzen ari garen aurrekontuko diru-sarreraren aurreikuspenak zehazteko, oinarri hauek erabili dira:
 - Aurreko ekitaldian baliabideengatik lortutako etekina (1, 2, 3 eta 4 kapituluak).
 - Espero diren zerga unitate berriak, eta katastroko balioen gehikuntza (balioen igoera: 0), tributu propioei dagokienez (1 kapitulua).
 - Borondatezko zergetan espero diren zergagai kopurua (1 eta 2 kapituluak).
 - Ordenantza fiskalen eta prezio publikoen tasak, tarifak eta kuotak gehitzeko hartutako erabakiak (1, 2 eta 3 kapituluak).
 - Udalak Finantzatzeko Foru Fondoaren partaidetzan eta itundu gabeko zergen partaidetzan espero diren aurreikuspenak. (4 kapitulua).
 - Transferentzia eta diru-laguntza arrunten nahiz kapitalezkoen zenbateko ezaguna edo ustezkoa (4 eta 7 kapituluak).
 - Ondarezko ondasuna besterenganatzeagatik aurreikusitako emaitza, balorazio teknikoaren arabera (6 kapitulua): lurzoruak besterenganatzeagatik lortutako baliabideak Udalaren Lurzoru Ondasunera aplikatu behar da, legez. Horren kontrola, aurrekontuaren likidazioarekin batera egingo da.
 - Ekarpenetan sinaturiko hirigintzako hitzarmen eta konpromisoak.

- 2.- Aztertzen ari diren aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarriko dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependentzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta

instalazioak egitetik datozen gastuak.

OHARRA: I. kapituluaren aurreikuspenari buruz, honako aipamena egin behar da: ez da jaso Udaltzarrak, 2019ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran esleitutako zenbateko orokorra (331.000,00 euro) produktibitate osagarria ordaintzeko "Udal honetan 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte beren zerbitzuak eman dituzten udal langileei" (2019P3990011 espedientea).

- 3.- Aurrekontuan jasotako diru-sarrerak aurrekontuan bertan aurreikusitako gastuen kreditu guztiak ordaintzeko ematen du eta, hortaz, esan dezakegu Aurrekontuak ez duela hasierako defizitik.
- 4.- Pertsonalaren kostuei dagokienez (Gastuen Aurrekontuen 1 Kapitulu), Giza baliabideetako arduradunak dagozkion legezko txostenak egin ditu. Bestalde, Zarautz Lur S.A.k bidali du lanpostuen zerrenda eta aurrekontuaren onespeneraren ziurtagiria (2020/12/16ko Administrazio Kontseilua).
- 6.- Udal Lurzoru Ondareari buruz honakoa adierazi behar da:
 - a) Ez dago ondare bereizi modura eraturako Udal Lurzoru Ondareri (2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 112 artikulua).

Udal Lurzoru Ondareko gastuen aurrekontuari dagokionez (2/2006 Legea, 114 artikulua) -diru-sarreraren I. eta II. kapituluaren batuketaren osoaren %10 gehi aurrekontuko hirigintza-aprobatxamenduetako 15.000 euroak-, esan behar da aurrekontuetako agiriaren artean erantsi dela zenbateko hori estaliko duten inbertsioetako gastuei buruz teknikari eskudunak egindako txostena.

- 7.- Aurrekontuen Egonkortasunerako Lege Orokorra betetzei buruz, esan behar da 2021 urteko aurrekontu orokorrak betetzen dituela 9/2020 Foru Dekretu-Arauek, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoak finkatutako arauak eta helburuak (defizita, aurrekontu egonkortasuna, iraunkortasuna, gastu-araua eta maileguak baimentzekoak).

Zarautz, 2021eko urtarrilaren 7.

Kontu-hartzailea

KARMELE
LIZASO
UBERA -
15994294W

Digitalki sinatuta
norenagandik:
KARMELE LIZASO
UBERA - 15994294W
Data: 2021.01.11
10:30:11 +01'00'



ZARAUZKO UDALA

INES DIAZ DE VILLFRANCA ARZAMENDI, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek

ZIURTATATZEN DUT: 2019ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran (akta onartzeko dago), Udalbatzarrak honako hau erabaki zuela:

"ZENBATEKO OROKORRA ESLEITZEA (PRODUKTIBITATE OSAGARRIA)

2019P3990011 espedientea

Udalaren zerbitzuan ari diren langileek produktibitate osagarria jaso ahalko dute 2018. ekitaldirako ezarritako helburuen lorpenari lotutako etekinak saritzeko.

Ordainsari horren ordainketak ez du zerikusirik Estatuko Aurrekontu Orokorretan 2019. ekitaldirako ezarritako igoerekin, hauetatik kanpo dago.

Produktibitate osagarri horri ekin ahal izateko beharrezkoa da lan-jarduna eta produktibitatea ebaluatzeko sistema ezartzea langileen motibazio, efikazia eta efizientzia ahalik eta handiena lortzearen. Dena den, lanbide-karrera horizontalean aurrera egiteari lotutako lan-jarduna ebaluatzeko sistemak ez ditugu, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren (TREBEP) 20. artikuluan jasotzen direnak, eta geroko Euskal Enplegu Publikoaren Legeak garatzeko dituenak.

Lege-garapen hori eta horrek berekin dakarren garapena ebaluatzeko sistema izan arte, produktibitate osagarria kalkulatzeko aukera izan daiteke, udal langileak guztien ekarpen maila bezalako faktoreak txertatzea, hala nola 2015-2019 Legegintzaldiko Planean jasotzen diren helburu estrategikoak lortzea.

Legegintzaldiko Plan horretan Udalak helburu estrategikoak zein izango diren zehaztu ditu agintaldi honen amaierara arte, hala nola hainbat aukera horiek burutzeko eta horren guztiaren ondoriozko ekintzak, arduradun politikoak eta teknikoak zein izango diren zehaztuta. Aldi berean, aukera ematen du lortu nahi diren helburuen jarraipena, ziurgabetasuna gutxituz eta komunikazioa ahalbideratuz erakundeari nahiz herritarrei begira.

Horrek guztiak berekin dakar udal sail eta azpisailletako langileen arteko lankidetzeta eta lana helburu estrategiko nagusiak lortze aldera.

Hori dela-eta, Giza Baliabideetako zinegotziak, kontuan izanda programa bakoitzerako ezarritako helburuen betetze-mailagatik dagokion ordainsariaren egokitzapena produktibitate-osagarriaren bidez formalizatzen dela eta 2018. ekitaldia ixtean I. kapituluaren aurreztu dela, proposatzen du indarrean dagoen aurrekontuaren I. kapitulutik 331.000 euro bideratzea produktibitateko ordainsaria ordaintzera, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte zerbitzuak eman dituzten udal langileen artean banatzeko.

Horren haritik, 861/1986 EDaren 5.5 artikulua xedatutakoaren babespean, non bertan ezartzen den Tokiko Administrazioaren Funtzionarioen ordainsarien sistema, Udalbatzari dagokio aurrekontuan zehaztea zein den produktibitate osagarria emateko bideratutako diru-kopuru guztia, hala nola irizpideak ezartzea banakako esleipena egiteko enplegatuak bere lana egiten duen interes, ekimen edo ahaleginaren mailaren eta lortutako etekinaren edo emaitzen arabera.

Ondoren, programa edo departamentu ezberdinetan diru-kopurua banatzeko eskumeneko organoa Alkatea da, eta, baita produktibitate osagarri indibidual hori emateko ere (861/1986 EDaren 6. atalaren 5. artikulua), betiere Udalbatzak ezarri behar dituen aipatutako irizpideen eraginpean.

Irizpide horiek ezartzeko, esan bezala, oinarri izan behar dutenak enplegatuak bere lana egiteko duen interesa, ekimena edo ahalegina eta lortutako etekina edo emaitzak, Langile Batzordearekin negoziatzeari ekin zaio.

Azaldutakoa kontuan hartuta,

Kontu-hartzailearen eta Giza Baliabideetako teknikariaren txostenak aztertuta, Giza Baliabideetako zinegotziak proposatuta, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Xedatzea gehienez 331.000 €ko produktibitate-osagarria ordaintzeko udal honetan 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte beren zerbitzuak eman dituzten udal langileei.

Bigarrena.- Osagarri horren ordainketa banatzeko beharrezko izango da negoziazio prozesuan dauden irizpideak Udalbatzak onartzea.

Hirugarrena.- Xedatzea 331.000 euroko gastua honako aurrekontu-aplikazioen kontura: (...)

Laugarrena. Zarautz Lur SAK dagozkion erabakiak hartu beharko ditu zentzu berean."

Hala jasota gera dadin eta dagozkion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2019ko apirilaren hogeita seian.





ZARAUZKO UDALA

INES DIAZ DE VILLFRANCA ARZAMENDI, *Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,*

CERTIFICO: *Que el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 25 de abril de 2019, cuya acta se encuentra pendiente de aprobación, adoptó el siguiente acuerdo:*

"ASIGNACIÓN DE CANTIDAD GLOBAL (COMPLEMENTO DE PRODUCTIVIDAD)

Expediente 2019P3990011

El personal al servicio del Ayuntamiento podrá percibir un complemento de productividad para primar los rendimientos vinculados a la consecución de los objetivos fijados para el presente ejercicio 2018.

El abono de este complemento es al margen de los incrementos del que para el ejercicio 2019 pueda establecerse en los Presupuestos Generales del Estado.

Para poder abordar el citado complemento de productividad se precisa establecer un sistema de evaluación del desempeño y de la productividad para conseguir la mayor motivación, eficacia y eficiencia posible del personal. Sin embargo, todavía no se dispone de los sistemas de evaluación del desempeño vinculados a la progresión de la carrera profesional horizontal, contemplada en el artículo 20 del TREBEP que están pendientes de desarrollo mediante la futura Ley de Empleo Público Vasco.

Hasta tanto no se disponga del citado desarrollo legal y del sistema de evaluación del desarrollo que ello conlleve, se puede optar por incorporar para el cálculo del complemento de productividad, factores como el grado de contribución de los empleados y empleadas municipales en su conjunto, a la consecución de los objetivos estratégicos recogidos en el Plan de Legislatura 2015- 2019.

En este Plan de Legislatura, el Ayuntamiento ha definido los objetivos estratégicos hasta el final de este mandato, junto con las diversas opciones para su ejecución y las acciones concretas derivadas de todo ello, quedando identificados los responsables políticos y técnicos. Al mismo tiempo, permite realizar un seguimiento de las acciones necesarias para el logro de los objetivos que se persiguen, reduciendo la incertidumbre y facilitando la comunicación tanto hacia la organización como hacia la ciudadanía.

Todo esto está originando la colaboración y trabajo conjunto del personal de las áreas y saboreas municipales para alcanzar el logro de los grandes objetivos estratégicos.

Por ello, el concejal de Recursos Humanos atendiendo a que la adecuación retributiva por el grado de consecución de los objetivos fijados para cada programa, se formaliza mediante el complemento de productividad y constatado que al cierre del ejercicio 2018, se ha producido un ahorro dentro del Capítulo I, propone se destine la cantidad global de 331.000 € para el abono de dicho complemento de productividad entre todos los/as empleados/as municipales que hayan prestado sus servicios entre el 1 de enero al 31 de diciembre de 2018.

En este sentido, al amparo de lo dispuesto en el artículo 5.5 del RD 861/1986, por el que se establece el régimen de las retribuciones de los Funcionarios de Administración Local,

le corresponde al Pleno de la Corporación determinar en el presupuesto la cantidad global destinada a la asignación del complemento de productividad y el establecimiento de los criterios para su asignación individual en función del grado de interés, iniciativa o esfuerzo con que el personal empleado desempeña su trabajo y el rendimiento o resultados obtenidos.

Con posterioridad, es el Alcalde el órgano competente para la distribución de la cuantía entre los diferentes programas o áreas y la asignación individual del citado complemento de productividad (art. 5 apartado 6 del citado RD 861/1986), con sujeción a los mencionados criterios que tiene que establecer el Pleno.

Para el establecimiento de estos criterios que, como ya se ha mencionado, tienen que estar inspirados en el interés, iniciativa o esfuerzo con que el empleado y empleada desempeña su trabajo y el rendimiento y resultados obtenidos, se ha iniciado la negociación con la Junta de Personal.

Considerando lo expuesto,

Vistos los informes de la Interventora y del Responsable de Recursos Humanos, a propuesta del concejal de Recursos Humanos, previo dictamen de la Comisión Informativa de Organización, el Pleno del Ayuntamiento, por unanimidad,

ACUERDA

Primero.- Determinar la cantidad global máxima de 331.000 € para el abono de un complemento de productividad entre el personal municipal que haya prestado sus servicios en este Ayuntamiento entre el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2018.



Segundo.- Condicionar el abono de dicho complemento a la aprobación por el Pleno de los criterios para su distribución que se encuentran en proceso de negociación.

Tercero.- Disponer el gasto por importe de 331.000€ con cargo a las aplicaciones Presupuestarias: (...)


Cuarto.- Zarautz Lur S.A. deberá adoptar el acuerdo correspondiente en los mismos terminos."

Para que así conste y surta sus efectos donde proceda extendiendo y firmando la presente con el visto bueno del Sr. Alcalde, en Zarautz a veintiseis de abril de 2019.

VºBº
El Alcalde



La Secretaria





661/2020 TXOSTENA, abenduaren 30ekoa

2021eko udal aurrekontuak. Udal lurzoru-ondareari buruzko eskakizunak betetzeari buruzko txostena

Kontu-hartzaileak Udalaren 2021. urteko udal aurrekontuen proposamenari buruzko txostena eskatu dio Hirigintza eta Ingurumen Departamentuari, ondorengo gaiaren inguruan:

- Aurrekontuen proposamenak eta lurzoruaren udal ondareari buruzko legedia.
- EIOZ (ICIO) zergaren diru-sarreraren aurreikuspena

1.- 2021eko aurrekontuen-proposamena eta lurzoruaren udal ondareari buruzko legedia

1.a.- Udal lurzoru-ondarearen xedeak eta horretarako izendatu behar den diru-kopurua. Euskadin, funtsean, ondorengo da arlo hori arautzen duen legedia:

- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, 111 eta 118 bitarteko artikulua
- 105/2008 Dekretua, 37 eta 39 arteko artikulua

Legearen arabera, udal lurzoru-ondarea (ULO) burujabea eta administrazioaren gainerako berezia dagoen ondarea da; debekatuta dago ondare hori legeak aurreikusi ez dituen beste helburu edo xedeetara erabiltzea.

2/2006 Legeak zehazten ditu zein ondasun eta baliabideak osatzen dituzten udal lurzoru ondareak; halaber, Lege horrek eta 105/2008 Dekretuak agintzen dute udalaren lurzoru ondareei eman beharreko erabilera.

Ondare berezia den aldetik bere aurrekontu partidak eduki beharko ditu, sarrera eta gastuko atal korrelatiboekin. Partida horiek, bereziki gastukoak eta inbertsioak, xehetasun nahikoarekin agertu behar dira.

2/2006 Legearen 114. artikulua horrela dio:

"Udalak bere urteoroko aurrekontuetan udal-ondarerako izendatuko diru-kopuruak ezin izango du inolaz ere diru-sarreraren I. eta II. kapituluaren batuketa osoaren %10etik behera jo...

...gutxieneko diru-kopuruari buruz aurreko paragrafoan ezarritako araua lau urteko aldiei dagokie. Beraz, aurrekontu-ekitaldi jakineko aurreikuspen txikiago edo handiagoak,



lau urteko epe berebean, geroko aurrekontu ekitaldietan egin beharreko kontrako aurreikuspenen bidez konpentsatu ahal izango dira, beti ere ziurtatzen baldin bada aurreko paragrafoan lau urte horietarako adierazitako urteko batez besteko %10a betetzea...

Azken lau aurrekontuetan (2017-2020), Udalak bete zuen arau hori.

Bestalde, 2/2006 Legearen 115. artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 38. eta 39. artikuluek zehazten dituzte udalaren lurzoru ondarearen erabilerak. Honakoak izan daitezke:

- Lehentasunez, babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak eraikitzea, edo horietako batzuk barnean dituzten egoitza-area edo sektorean urbanizazio obrak ordaintzeko ere.
- Lurzoruaren udal-erreserbarako areen menpe dauden ondasun eta eskubideak erostea.
- Degradatutako aldeetan birgaitzeko obrak egitea, edo alde horietan zuzkidura publikoak eta sistema orokorrak eraikitzeko obrak egitea
- Sustapeneko edo interes publikoko jarduera ekonomikoetarako lurzorua eskuratzea edo lurzoruaren sustapen publikoa egitea
- Historia eta kultura-ondarea birgaitzea
- Udal ekipamendu kolektiboak eraikitzea edo birgaitzea eta hobetzea (jabari eta erabilera publikoak)

1.b.- 2021eko udal aurrekontuaren analisisa. Aurrekontuen zirriborroan jasotako 1. eta 2. kapituluko diru-sarrerak, eta inbertsio-gastuak begiratu ditugu. Honako ondorioak atera daitezke:

1.b.1.- Udalaren lurzoru ondarrera zuzendu behar diren gutxieneko diru-sarrerak. Udal kontu hartzaileak emandako datuen arabera, honakoak dira aurrekontuetan sartuko diren I. eta II. kapituluaren diru-sarreraren zenbatekoak:

- ▲ I. Kapituluak: 7.881.965 €
- ▲ II. Kapituluak: 400.000 €
- ▲ Bien artean: 8.281.965 €

Zenbateko horietaz gain, kontuan hartu beharra dago *inbertsio errealak besterentzeagatik eta hirigintzako jardueretatik ondoriozko diru-sarrerak* izeneko 6. kapituluan aurreikusitakoa, beste 15.000 €.

Legeak ezarritako baldintzak aplikatzen badugu, honakoa da inbertsioko partidetan justifikatu beharko den gutxieneko zenbatekoa: **829.696,5 €.**



1.b.2.- Udalaren lurzoru-ondarera zuzendutako inbertsioko gastuen partidak. Guztira, 2.083.694 € jaso dute inbertsiorako udal aurrekontuen VI. kapituluan, hainbat partidetan banakatuta.

Azterketarako baztertu egingo ditut 50.000 € edo zenbateko txikiagoa duten partidak, eta baita ere, izendapen oso generikoa dutenak. Salbuespen bakarra Sanz Enea eraikinaren teilatua izango da; kasu horretan, nahiz eta 40.000 €-ko aurrekontua izan, egokia irizten dut zenbatzea historia eta kultura-ondareko eraikina den aldetik.

Irizpide horiek jarraituz, honakoak jo ditut lurzoru-ondarera zuzendutako inbertsioak:

Historia eta kultura-ondarea birgaitzeko obrak egitea. Atal honetan ondorengo partida sar dezakegu:

▲ *Sanz Eneako Teilatua (0401.622.01.330.00)* 40.000 €

Udal ekipamendu kolektiboak eraikitzea edo birgaitzea eta hobetzea. Atal honetan ondorengo partidak sar ditzakegu:

▲ *Arboretum (0407.609.01.171.00)* 97.000 €
▲ *Maria Inmaculada/Musika Eskola (0601.622.01.326.30)* 374.500 €
▲ *Abendañoko 7. Pabilioia egokitzea (0401.622.02.150.00)* 100.000 €
▲ *Orokietia Patioa Estaltzea (0401.623.02.323.010)* 300.000 €

Udalaren lurzoru-ondarera zuzendutako inbertsioak udal aurrekontuetan, guztira: **871.500 €**

2.- Dirusarreraren aurreikuspena (EIOZ).

400.000 €-ko aurreikuspena jaso dute. 2020an 500.000 € aurreikusi ziren, baina urte amaieran ez gara iritsi zenbateko horretara: 476.327,46 €-ko eskubide onartu garbiak, eta 391.877,46 €-ko bilketa likidoa.

2021 urtea inkognita da. Ia segurutzat jo dezakegu Salberdineko R3 eta G1 partzelak eraikitzeko obra-lizentziak eta agian Errotaberri sektorean hasiko dira lizentziak eskatzen. Baina pandemiaren eboluzioak eragin dezake jarduera ekonomikoa.

Hasiera batean, ez dugu espero 2020an baino diru gehiago biltzea. Beraz, 400.000 €-ko aurreikuspena zuhurra eta egokia da.

3.- Konklusioak



ZARAUZKO UDALA

2020HHHH0001

3.a.- Udalaren aurrekontuko zirriborroaren inbertsioko partidetan 871.500 € daude esleituta udal lurzoru-ondarearen xedeetarako, derrigorrezkoa den gutxieneko diru zenbatekoa (829.696,5 €) baino gehiago. Beraz, 2021eko udal aurrekontuen proposamenak 2/2006 Legean eta 105/2008 Dekretuan xedatutakoa bete egiten du.

3.b.- EIOZ kontzeptuagatik egin den aurreikuspena (400.000,00 €) egokia da aintzat hartuta 2020an izandako diru-sarrerak.

Zarautzen, 2020ko abenduaren 30ean

Paul Muñoa Arizmendiarieta
Hirigintza eta Ingurumen Departamentuko AOT arduraduna

